EAEko
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO PLAN OROKORRA

Plangintzaldi berria

2023-2032

Vitoria-Gasteiz, 2023

0.- SARRERA

Justizia Administrazioan hizkuntza normalizatzeko bigarren plangintzaldiari hasiera eman nahi zaio oraingo honetan, 2011-2020 planaren ondoren. Bigarren plangintzaldi honetan, jarraituko egingo da ahalegina egiten euskararen normalizazioa helburu estrategikoa dela- eta lotutako helburuak eta ekintzak diseinatzeko eta gauzatzeko.

Aurreko plana lehena izan zen Justiziaren eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoari 1996an arlo horretako eskumenak transferitu zirenetik, eta oso baliagarria izan da, hain konplexua den Justiziaren eremu honetan, euskararen erabilera normalizatzeko har daitezkeen jokabideen oinarriak ezartzeko.

Konplexua, bai, zeren Administrazioak gainerako eremuetan berez dituen zailtasunei beste bat gehitzen zaio, eta ez edonolakoa, berebiziko garrantzia izanik, izan ere, eremu honetan topo egiten baitute bi administrazio desberdinen eskumenek. Hori islatu egiten da eremu honetako lanpostuen horniketan eta definizioan, zeren, Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoak xedatzen duenez, euskara ezin baita galdatu Estatuaren mendeko kidegoen lanpostuen konfigurazioan. Areago, lege horren 231. artikuluan bertan bermatu egiten da kidego horiek gaztelaniaz bakar-bakarrik lan egiteko ahalmena.

Zaila da bateratzea ahalmen hori eta herritarrei eman beharreko hizkuntza-eskubideen bermea, izan ere, eskubidea baitute EAEko edozein hizkuntza ofizialetan jasotzeko herri administrazioen zerbitzua, bertoko araudian xedatzen denez gero, eta, hala, batera bi eskubide jokoan daudelarik –batetik, Estatu Administrazioaren mendeko kidegoek gaztelania bakarrik erabiltzekoa, eta, bestetik, euskal herritarrak Justizia Administrazioaren euskaraz komunikatzekoa–, neketsu bihurtzen du eremu honetako normalizazio lana.

Bai, egia da, egindakoak gorabehera, oraindik ere normalizatu gabe dirauela euskarak Justizian. Izan ere, oraindik ere gutxiengoa dira, Justizia Administrazioa osatzen duten eragile talde guztiak kontuan harturik, lana bi hizkuntza ofizialetan maila berean jarduteko gaitasuna dutenak, zalantzarik gabe ezagutzan gora egin bada ere. Eta ezin da oraindik ere bermatu herritarrek aitortuta duten hizkuntza hautatzeko eskubidea berdintasun osoz egikaritu ahal izatea, nahiz eta, eskubidea nola edo hala egikaritzeko, gero eta bide gehiago jarri diren. Eta gero eta finkatuago dagoen arren, oraindik ez baitira guztiz estandarizatu euskara juridikoa osatzen duten terminologia eta fraseologia.

Eta bai, asko egin den arren, oraindik ere bada gehiago egitear, baina egin beharrekoak modu eragingarrian eta eraginkorrean burutu daitezen, era planifikatu batean egituratu behar dira, egindako hutsak berriz ez egiteko, erdietsitako lorpenak alferrik gal ez daitezen, erabili beharreko baliabideak eta indarrak optimizatzeko.

Esan den bezala, nabaria da, EAEko beste administrazio-eremu gehienen aldean, Justizia Administrazioa nabarmen atzerago dabilela hizkuntza normalizazioaren bidean, eta bi arrazoi nagusi hartu behar dira kontuan, atzerapen hori ulertzeko:

- Batetik, administrazio horren ezaugarri konplexu bereziak.
- Bestetik, arlo horretan hizkuntza normalizazioa arautzen beranduago hasi izana

Lehenengo arrazoiari dagokionez, halabeharrez hartu behar eskumen esparru desberdinen arteko topa eta talka gune dela. izan ere, botere judizialaren antolakuntza bakarra da estatu osorako, baina EAEk bere gain harturik dauka Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen kudeaketa, nahiz eta kidego horien eginkizunen definizioa Estatuaren esku egon. Aginte eremu desberdinak izanik jokoan, ez da erraza beste eremu publiko batzuetan aplikatutako arau eta neurriak Justizian txertatzea. Gainera, ezin da ahaztu barruko eragileekin batera kanpoko eragileek ere parte hartzen dutela. Ondorioz, esparru publiko eta pribatu desberdinek elkarrekin egiten dute topo berez gatazkagune den eremu honetan.

Bigarrenari dagokionez, gogoan izan behar da, Euskararen Legea 1982an onartu zen arren, Eusko Jaurlaritzak ez zuela 1996 arte jaso Justizia Administrazioaren gaineko eskuduntza, eta, horregatik, ia 20 urte igaro ziren EAEko Justizia Administrazioan hizkuntza normalizazioari ekiten hasi arte. Eskuduntza jaso barik zegoenez gero, EAEko administrazioetan euskara normalizatzeko araudi orokorretik kanpo utzi zen Justiziaren eremua, eta, horrenbestez, normalizazioaren bidea beste administrazioekin batera jorratzen hasteko trena galdu zen, ezinbestez.

Bada, 2001ean eman zitzaion hasiera bideari, 117/2001 Dekretua ematearekin batera, hain zuzen ere. Ez zen hasiera erraza izan, Espainiako Gobernuak eskumen gatazka sustatu baitzuen haren aurka, eta etenda utzi zuen dekretua, urtebe beranduago haren aldeko ebazpena eman zen arte, 2002ko ekainaren 5eko Autoaren bidez.

Baina bideari ekiten hasi bezain laster, 19/2003 Lege Organikoa eman zen, Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzeko, eta egungo kidegoen estatutu juridikoa ezartzeko. Ondorioz, aldaketa horrek dekretua berritu beharra ekarri zuen, egoera berriari egokiturik, Justizia Administrazioko hizkuntza normalizazioa arautzeko.

Hala sortu ziren 152/2008 Dekretua eta 2008-2017 urte bitarterako Hizkuntza Normalizazioko Plana, euskara sustatzeko politikari lege oinarria emateko. Hala ere, estatuak berriz jo zuen dekretu horren aurka eta, hainbat artikulu baliogabeturik geratu ondoren, beste dekretu bat onartzeko premia azaleratu zen.

Izan ere, aurrekari horiek kontuan hartzen badira, agerian uzten da ondoren emandako 174/2010 Dekretuaren garrantzia, osorik mantendu baita eman zenetik, hamabi urte hauetan, oinarri sendo eta irmoa emanez 2011-2020 urte bitarterako birformulatu behar izan zen Hizkuntza Normalizazioko Plan Orokorrari, eta Justizia Administrazioa euskalduntzeko.

Bestalde, logistikaren eta arau-esparruaren ikuspuntuetatik, une hauetan berebiziko aldaketak ari dira gertatzen, eta aldaketa horiek funtsezko eragina dute, Administrazioaren eremu honetan ere herritarrei euskara erabiltzeko eskubidea bermatzeko betebeharrari erantzuteko Administrazio honek hartu dituen tresnetan.

Hala, Justizia Zerbitzu Publikoaren Antolakuntza Eraginkortasunaren Legea, oraindik proiektu garaian bada ere, oinarri izango du Justiziaren elkarreragingarritasunera eta funtzionamendu digitalera jauzi koalitatiboa emango duen egitasmoak, eta harekin batera, prozesu

eraginkortasuneko eta eraginkortasun digitaleko egitarauek ere. Izan ere, lege horrek behar diren erreformak ezarriko ditu, hala Botere Judizialaren Lege Organikoan nola Mugape eta Planta Judizialaren Legean, antolamenduzko egitura berriak ezartzeko, Estatuan, Justizia Administrazioaren esparruan, hala nola Auzialdiko Auzitegiak (AA), horien euskarri diren bulego judizialak (BJ) eta Udalerrietako Justizia Bulegoak (UJB).

Egitura berrien ezarpenari lotutako aldaketak ahalbidetuko ditu tresna teknologiko berrien aldi bereko zabalkundeak, eta bereziki, espediente judizial elektronikoak, elkarreragingarritasunak eta, edozein jarduketa judiziala gauzatzeko ohiko bide gisa,

Espediente judizial elektronikoa eta interoperabilitatea Euskadin formalizatzea gauzatuko duten lanabes teknologiko horiei dagokienez, une honetan arian-arian eta mailaka ari da ezartzen AVANTIUS aplikazioa, eta horren bidez ordezkatuko da orain arte erabili den J-Bat aplikazioa, zeinak txertatuta baitzituen administrazioa eta herritarren arteko solaskidetza euskaraz gauzatzeko gaur arte garatu diren tresna guztiak.

Justiziaren eremuan garatzen ari den iraultza teknologiko honetan, behin-behineko egoera batean aurkitzen gara, zeren, AVANTIUS plataforma arian-arian ezartzen ari denez, oraindik ere ez baitaude erabilgarri euskaraz jarduteko aurreikusitako funtzionalitate guztiak. Aplikazioaren prozesu ebolutiboan, eta hura guztiz ezartzen denerako, J-Bat aplikazioan erabilgarri dauden funtzionalitateen antzekoak gehitzea aurreikusita dago.

Testuinguru aldakor honetan, hemen gaude, orain, hamar urteko plan hura amaituta, eta orduan egindakoa ebaluatu ondoren, beste hamar urteko aldiari aurre egin beharrean. Plan horren gaineko dokumentu honek bi zati nagusi:

- Egoeraren azterketa
    - Biztanleria eta euskara
    - Arau esparrua
    - Euskara eta Justizia Administrazioa EAEn
        - Lehenengo Normalizazio Plan Orokorraren emaitzak
        - Egungo abiapuntuko egoera
- Plan berria: proposatutako helburu eta neurriak

1.- EGOERAREN AZTERKETA

1.1 BIZTANLERIA ETA EUSKARA

EUSTATen 2016ko errolda datuak dira berrienak. Horiexek erabili beharko ditugu, 2021eko erroldaren faltan, egoeraren azterketa egiteko. Alderaketak 1981-2016 urte bitartekoaz egin beharko lirateke, batetik, hizkuntza gaitasunari buruzko datuak dituzten bakarrak direlako, eta bestetik, oraingo ofizialtasun esparrua biltzen dituelako urte bitarteak.

1.1.1 Biztanleriaren bilakaera 1981-2016

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
ARABA	249.792	261.228	267.557	277.011	279.460	297.569	311.624	314.744
BIZKAIA	1.155.778	1.153.989	1.136.358	1.121.600	1.097.288	1.108.209	1.123.190	1.113.955
GIPUZKOA	675.891	674.778	665.012	663.914	656.499	666.763	684.772	694.196
EAE	**2.081.461**	**2.089.995**	**2.068.927**	**2.062.525**	**2.033.247**	**2.072.541**	**2.119.586**	**2.122.895**



1981-2016 bitartean, % 2 baino ez da hazi EAEko biztanleria, 40.000 biztanle pasatxo irabazita. hala ere, egoera oso desberdina da lurraldeka:

- Arabak, % 26ko hazkuntza positiboa izan du, ia 65.000 biztanle irabazita
- Bizkaiak, % 4ko jaitsiera, Erkidegoak irabazi duen beste biztanle galduz: ia 42.000
- Gipuzkoak, % 3ko hazkuntza positiboa, 18.000 lagun irabazita

Adinari dagokionez, nabarmena da zahartze prozesua:

	1981	2016
EAE	2.141.809	2.176.577
0 - 19	732.242	398.985
20 - 64	1.212.273	1.306.527
>= 65	197.294	471.065

	1981	2016
EAE	100,0%	100,0%
0 - 19	34,2%	18,3%
20 - 64	56,6%	60,0%
>= 65	9,2%	21,6%





Izan ere, 19 urte arteko adin taldeak ia erdira murriztu du bere pisua, biztanleria osoarekiko, eta 65 urtetik gorako adin taldeak, berriz, bikoiztu baino gehixeago egin du berea.

Bestalde, 20-64 adin taldea hazi bada ere (biztanleria osoaren erdia izatetik hiru bosten izateraino), antzematen da batez ere adin talde horretako azpitalde zaharrenetan izan dela hazkuntza handiena, adin talde horren barruko egitura aztertuz gero.

Hori oso garrantzitsua da hizkuntza ezagutzaren datuak aztertzean, geroago ikusiko denez.

1.1.2 Hizkuntza gaitasuna

Begi-bistakoa da ezagutzan lorturiko hazkuntza, taula hauek aztertuz gero:

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
GUZT.	2.081.461	2.089.995	2.068.927	2.062.525	2.033.247	2.072.541	2.119.586	2.122.895
eus	448.156	513.804	543.617	636.816	656.980	774.894	789.439	895.942
ia-eus	300.885	364.162	410.536	406.810	470.124	458.939	541.562	391.897
erd	1.332.420	1.212.029	1.114.774	1.018.899	906.143	838.708	788.585	835.056

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
eus	**21,5%**	**24,6%**	**26,3%**	**30,9%**	**32,3%**	**37,4%**	**37,2%**	**42,2%**
ia-eus	**14,5%**	**17,4%**	**19,8%**	**19,7%**	**23,1%**	**22,1%**	**25,6%**	**18,5%**
erd	**64,0%**	**58,0%**	**53,9%**	**49,4%**	**44,6%**	**40,5%**	**37,2%**	**39,3%**

Euskaldunen kopurua bikoiztu egin da, eta gauza bera esan liteke, euskaldunak eta ia euskaldunak baturik, euskara asko edo zerbait dakitenen gainean, 1981ean heren bat pasatxo baziren ere, 2016an % 60 izatera pasa baitira, hots, bostetik hiru. Euskara batere ez dakitenen multzoa, ordea, nabarmen jaitsi da, biztanleria osoaren hirutik bi izatetik, % 40 izatera jaitsi bada, hots, bostetik bira izatera.



Lurraldeka aztertuta, alde handiak daude batetik bestera begiratuz gero.

Arabak du oraindik euskaldun kopuru apalena, baina azpimarratu beharrekoa da talde horren hazkuntza bizia, % 4 izatetik % 28 igarotzera iritsita. Euskaraz asko eta zerbait dakitenen kopuruak baturik ere, deigarria da emaitza, %13tik %48ra igaro baita kopurua. Beraz, esan liteke ia arabar erdiek zerbait edo asko badakitela euskaraz.



Bizkaiak ere hazkuntza izan du, Arabakoa bezain bizia izan ez bada ere, % 15etik %36ra igaro baita euskaldunen kopurua, hots, bikoiztu eta gehiago eginda. Euskaraz asko eta zerbait dakitenen kopuruak baturik ere, bikoiztu egin da, %28tik %56ra igaro baita kopurua. Beraz, esan liteke bizkaitar erdiek baino gehiago badakitela euskaraz zerbait edo asko.



Gipuzkoan du egoerarik onena euskararen ezagutzak: euskaldunak ia % 40 izatetik % 57 izatera pasa dira, ia % 50eko hazkuntza izanda. Euskaraz asko eta zerbait dakitenen kopuruak baturik ere, % 57tik % 73 izatera pasa da kopurua. Beraz, esan liteke gipuzkoarretatik, lautik batek baino ez dakiela batere euskaraz.



Dena dela, euskararen ezagutzan gora egin bada 1981-2016 bitartean, kontuan hartu behar da azken erroldako datuen arabera, erdaldun hutsen taldea 2006ko emaitzetara itzultzen ari dela, gorantz, berriz, apalki bada ere. Beharbada, etorkinen hazkuntza dela eta, etorkin gehienen hizkuntza nagusia gaztelania baita. Itxaron beharko da ikusi arte zer nolako eragina duen etorkinen seme-alabengan gure hezkuntza sistema elebidunak, eskolatzen diren ereduaren arabera, noski.

Azkenik, baina, ezin da ukatu hazkuntza nabarmena izan dela euskararen ezagutzari dagokionez, eta ezagutza maila horrek erabilera eta zerbitzu eskakizun potentzial handiak susmarazten dituenez, horri erantzuteko adina baliabide jarri beharko da.

1.2 ARAU ESPARRUA

Esparru orokor hori, oinarrian, honako hauek osatzen dute:

- 1978ko Konstituzioa
- EAEko Autonomia Estatutua
- Botere Judizialaren Lege Organikoa
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna
- Eusko Jaurlaritzaren 174/2010 Dekretua

1.2.1 Konstituzioa

EAEko hizkuntza-eskubideak bermatzeko oinarriak ezartzen ditu eta legegintza-erreferentzia garrantzitsuenetarikoa da.

> 3. artikulua
>
> 1. Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
>
> 2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorriz.
>
> 3. Espainiako hizkuntza moten aberastasuna kultura-ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.

Estatuko hizkuntza ofiziala gaztelania izango da, eta gainerako hizkuntzak koofizialak izango dira autonomia-erkidegoetako estatutuetan hala jaso bada: EAEn

Auzitegi Konstituzionalaren 82/1986 epaia, ofizialtasunari dagokionez:

> "Konstituzioan ez da definitzen zer den hizkuntza ofiziala […] araudiak baieztatzen du hizkuntza bat ofiziala dela, gizartean duen errealitatea eta indarra edozein dela ere, botere publikoek aitortzen diotenean baliozkotasun osoz eta ondore juridikoekin beraien artean eta subjektu pribatuekin komunikatzeko bide arrunta dela".

Ondorio garrantzitsua: "gertakaria izan den lekuko Autonomia Erkidegoan dauden botere publiko guztiengana iristen da". Hots, lurraldea da koofizialtasunaren muga-irizpidea, eta ez botere publikoaren izaera, izan estatala, izan autonomikoa, izan lokala.

Gaztelania jakiteko eginbeharra ezarri du; hala ere, ez da berdin gertatzen tokian tokiko beste hizkuntza koofizialekin.

Auzitegi Konstituzionalaren 105/2000 epaia:

- Organo judizialek ez dute gaztelania ez den beste hizkuntzarik jakiteko beharrik, justizia bakarra delako Espainian.
- Epaileek ezagutzen ez duten hizkuntza batean idatzitako idazkiak edo agiriak itzultzeko eska dezakete, beren jurisdikzio-funtzioa betetzeko beharrezkoa denean.
- Autonomia Erkidegoan hizkuntza koofiziala jakitea merezimendua da karrera judizialean sartzeko, baina ez beharrezko baldintza.

Konstituzio Auzitegiak 2005eko urriaren 11ko 253/2005 epaia, koofizialtasunari eta euskararen ezagutzari buruz:

> "gaztelania dela izaera orokorreko hizkuntza ofiziala eta espainiar guztiek dutela jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea (Konstituzioaren 3.1 art.), eta horregatik dela Justizia Administrazioan normalean erabiltzen den hizkuntza, BJLOren 231.1 artikuluan ezarritakoarekin bat. Baina, orokortasun horrekin batera, badira koofizialtasun linguistikoaren estatutua duten Autonomia Erkidego batzuk, eta estatutu horren arabera ezartzen da, besteak beste, norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea Administrazio Publikoen barnean eta haiekiko harremanetan, eta hori hala onartua agertzen da Justizia Administrazioarentzat BJLOren 231. artikuluaren 2 eta 3 ataletan" (56/1990 KAE, 41. ZO)".

Euskararen ezagutza kontuan hartu beharra dela-eta, lanpostuen arteko erlazioak osatzean eta lekualdaketako lehiaketetan. Ez dira KE aurkakoak:

- proportzionaltasun-printzipioa gordez, zenbait lanpostutan euskararen ezagutza betekizuna izatea
- zenbait lanpostutan euskararen ezagutza "funtsezko baldintza" izatea

1.2.2 EAEko Autonomia Estatutua

EAEn gaztelania-euskara koofizialtasuna ezarri zuen.

6. artikulua

1. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.
3. Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu. Eusko Legebiltzarreko 10/1982 Legean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko oinarrizkoan, garatzen dira Autonomia Estatutuan egindako aurreikuspenak.

Lege horrek bi helburu ditu, batetik, hizkuntzaren ofizialtasun bikoitza arautzea eta, bestetik, euskararen erabileraren normalizazioa lortzea (euskararen erabilera sustatzea).

9. artikuluak Justizia Administrazioa du xede:

1. Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beraiek aukeratutako hizkuntza ofiziala erabil dezakete, eta ez zaie itzulpenik eskatuko.
2. Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, baita jardun judizialak ere, erabat baliozkoak eta eraginkorrak izango dira.
3. Eusko Jaurlaritzak, egoki diren organoen bidez, EAEko Justizia Administrazioko euskararen erabileraren normalizazioa sustatuko du.

1.2.3 Botere Judizialaren Lege Organikoa (1985)

Konstituzioko 122. Artikuluaren arabera:

1. BJLOk finkatuko ditu epaitegi eta auzitegien eraketa, jardunbidea eta gobernua, karreradun epaileen eta magistratuen estatutu juridikoa, horiek kidego bakar bat eginik, eta JAren zerbitzupeko langileen estatutua.
2. BJKN beraren gobernurako organoa da. Lege Organikoak ezarriko ditu haren estatutua, eta kideen bateraezintasun-araubidea eta eginkizunak, batez ere, izendatze, igotze, ikuskatze eta diziplina-araubideari dagokionez.

231. artikuluan zehazten da jardun judizialetako hizkuntza-ofizialtasuna:

1. Jardun judizial guztietan epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariek eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, Estatuko hizkuntza ofiziala.
2. Epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariek eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek Autonomia Erkidegoko hizkuntza propioa erabil dezakete, alderdietako inork, hizkuntza hori ez dakiela alegatuz, aurka egiten ez badu, egoera horrek defentsa-gabezia sor baitezake.
3. Alderdiek, beren ordezkariek eta zuzentzen dituztenek, baita lekukoek eta adituek ere, jardun judizialak gauzatu behar dituzten lurraldeko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala erabil dezakete, bai ahozko adierazpenetan baita idatzizkoetan ere.
4. Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialean gauzatutako jardun judizialek eta aurkeztutako agiriek erabateko baliozkotasuna eta eraginkortasuna izango dute, gaztelaniara itzuli beharrik gabe. Jardun judizial eta agiri horiek ofizioz itzuliko dira Autonomia Erkidegotik kanpo dauden organo judizialetan ondoreak sortu behar dituztenean, salbu eta hizkuntza ofizial bera duten Autonomia Erkidegoak badira. Era berean, itzuli egingo dira legeetan horrela ezartzen denean edo defentsa-gabezia alegatzen duen alderdiak hala eskatzen duenean.
5. Ahozko jardunetan, interprete-lanak egiteko gaitzat jo dezake epaileak edo auzitegiak erabiliko den hizkuntza ezagutzen duen edonor, pertsona horrek aldez aurretik zin egin edo hitzeman ondoren.

341. artikuluaren arabera, merezimendutzat joko da hizkuntza ofizial propioa jakitea.

> 1. Zuzenbide Zibil berezia edo forala eta hizkuntza ofizial propioa duten Autonomia Erkidegoetako auzitegi nagusietako eta probintzia-auzitegietako lehendakariaren lanpostuak betetzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak merezimendutzat hartuko ditu Zuzenbide Zibil Berezia edo Forala ezagutzea eta Autonomia Erkidego horretako hizkuntza jakitea.
>
> 2. Aipatutako autonomia-erkidegoetako zuzenbide zibil berezi edo foralaren eta hizkuntzaren ezagutza balioesteko irizpideak erregelamendu bidez ezarriko dira, eta ezagutza hori lehentasunezko merezimendutzat hartuko da erkidego horietako lurraldeetako organo jurisdikzionaletan jarduteko lehiaketetan. Epaileei, kudeaketa

prozesal eta administratiboko kidegoei, izapide prozesal eta administratiboko kidegoei, laguntza judizialeko kidegoei eta auzitegiko medikuei dagokienez, beren erregelamenduan garatu dira BJLOko aurreikuspenak, eta hizkuntza propioa ezagutzea merezimendutzat baloratu da hizkuntza ofizial propioa duten Autonomia Erkidegoetako lanpostuak betetzeko.

455. artikuluan, 16/1994 Legeak aldatuta, zehazten da Autonomia Erkidegoek zein eskumen dituzten Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen gainean.

471.2 artikuluak baimena ematen die gai horretan eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoei Legeak garatzeko behar diren erregelamenduak onartzeko, eta hala, 60/1996 Dekretuaren bidez onarturik Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, ondorioz, Justizia Administrazioaren zerbitzura transferitu ziren langileak eta haien kidegoen Erregelamendu Organikoak ere onartu ziren.

249/1996 Errege Dekretuko 50. Artikulua

Justizia Administrazioaren funtzionamendurako giza baliabideen eskumena bereganatuta duten Autonomia Erkidegoek zehaztuko dituzte beren lurraldean kokatutako organoetako lanpostuak eta kargua betetzeko oinarrizko baldintzak. Horrekin bat eman zen 174/2010 Dekretua.

Garrantzitsua da: BJLOko 231. artikuluari jarraikiz, jardun judizialak itzuli egingo dira alderdietako batek defentsagabezia alegatzen badu, hizkuntza ezagutzen ez duelako. Zaila da, benetan, prozesu judizial bateko partaide guztiak euskaldunak izatea.

Epaileak eta fiskalak oinarrizkoak dira prozesu judizial baten garapenean. Aurreko puntuarekin lotuz, epaileen eta fiskalen euskararen ezagutza mailak eragin zuzena du Justizia Administrazioaren euskalduntzean.

BJLOko 341. artikuluarekin bat, euskara merezimendu profesionaltzat jotzen da. Merezimenduaren gehienezko puntuazioa 2.HE edo B2 maila lortuta, baina hori ez da nahikoa lanpostuan euskara erabiltzeko. Derrigortasunik ezak arazo batzuk sortzen ditu.

Herritarraren hizkuntza-eskubideak bermatzeko itzulpena bultzatzen da, baina horrek prozesua moteldu eta komunikazioan nabarmen eragiten du, jatorrizkoaren nolabaiteko interpretazioan oinarritzen denez, jatorrizkoaren nolabaiteko desbirtuazioa ekar baitezake.

520. artikuluan eta hurrengoetan lanpostu batzuk berezitzat joko dira, hizkuntza propioa ezagutzea lanpostu horietan aritzeko nahitaezkoa bada.

483.2 artikuluari jarraikiz, hizkuntza jakitea egiaztatu beharko da dagokion autonomia-erkidegoan lanpostua esleitzeko ondoreetarako. Barne-sustapenen txanda murriztuaren kasuan, hizkuntza ofizialari dagokion merezimenduaren balorazioak, baita beste probek eta merezimenduek ere, gaindituen zerrenda erabakiko dute.

BJLOko 530. artikuluan ezartzen da zenbait lanpostutarako nahitaezko betekizuna izango dela hizkuntzaren ahozko eta idatzizko ezagutza egiaztatzea, bete beharreko eginkizunen izaeragatik eskakizun hori nahitaezkoa denean eta lanpostuen arteko erlazioetan hala ezartzen bada.

BJLOko 471. artikuluak gai horretan eskumena duten Autonomia Erkidegoei ahalmena ematen diela aipatutako VI. Liburuaren garapena eska dezaketen erregelamenduak onartzeko.

1.2.4 Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna

2001ean berretsi zuen Espainiako gobernuak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992ko azaroaren 5ean Europako Kontseiluak Estrasburgon onartua.

Administrazio Publikoko arlo guztietan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatzeko neurri zehatzak ezartzen ditu Europako Gutunak. Justizia Administrazioan hartu beharreko neurriak 9. artikuluan aipatzen dira:

Zigor-arloko prozeduretan, zibilekoetan eta administrazioarekiko auzietakoetan honako konpromiso hauek hartuko dituzte alderdiek:

- Bermatzea alderdietako batek hala eskatzen duenean, organo jurisdikzionalak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan arduratuko direla prozeduraz; eta/edo
- Bermatzea akusatuari bere eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan hitz egiteko eskubidea; eta/edo
- Ziurtatzea demandak eta idatzitako edo ahozko frogak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan egoteagatik soilik ez ezestea; eta/edo
- Prozedura judizialeko agiriak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan idaztea, aldez aurretik eskatuta, eta, behar izanez gero, interpreteak edo itzultzailea erabiltzea, interesdunei inolako gastu gehigarririk erantsi gabe; eta/edo
- Aurreko ataletan azaldutakoa betetzeko eta, behar izanez gero, interpreteak eta itzultzaileak erabiltzeko -interesdunei inolako gastu gehigarririk jarri gabe neurriak hartzea. Aplikatzetik salbuesten dira dagokien barrutietan bizi diren eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza hitz egiten duten pertsonen kopuruak lehen azaldutako neurriak justifikatzen baditu. Gainera, kontuan hartu beharko da hizkuntza horietako bakoitzaren egoera eta epaileak uste izatea paragrafo horretan azaldutako aukeraren batek justizia-administrazioa ez duela inola ere oztopatzen.

Era berean, alderdiek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Estatuan egindako agiri juridikoen baliozkotasuna ez baztertzea, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan soilik idatzita egoteagatik; edo Estatuan egindako agiri juridikoen baliozkotasuna alderdien artean ez baztertzea eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan soilik idatzita egoteagatik, eta aipatutako hizkuntza hitz egiten ez duen hirugarren baten aurrean agiri horiek erabil daitezkeela ziurtatzea, betiere agiriaren edukia hirugarrengoari ezagutzera ematen badio agiriaz baliatu nahi duenak.
- Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan eskuragarri izatea estatuko legegintzazko testu garrantzitsuenak eta hizkuntza horiek hitz egiten dituztenei erreferentzia egiten dietenak, testu horiek lehendik beste modu batera ez badaude behintzat.

Adituen Batzordeak gomendio hauek eman zizkion 2019an Espainiari, boskarren txostenean, hartutako konpromisoak hobeto betetze aldera, eta azken biak hartu zituen kontuan Ministroen Batzordeak:[1]

- *Euskararen erabilera areagotzea Osakidetzan eta Ertzaintzan.*
- *Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzea, prozedura judizialetan hizkuntza autonomikoen erabilera bermatzeko, alderdi bakar batek eskatuta.*
- *Hizkuntza autonomikoen erabilera hobetzea Estatuko Administrazio Orokorreko organoetan hizkuntza propioa duten autonomia-erkidegoetan.*

Ondoren, Espainiako Gobernuak hauxe erantzun zuen, 2020ko uztaileko bitarteko txostenaren bidez, Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak 2019ko abenduaren 11n egin zituen berehalako ekintzarako Gomendioak betetzeari buruz[2]:

> *Espainiako Gobernuko Justizia Ministerioa lanean ari da, gomendio horri bultzada emateko prestasunez.*
>
> *Gaur egun, dagoeneko aitortuta du Botere Judizialaren Lege Organikoak (BJLO 231. art.), prozesu judizialetan hizkuntza aukeratzeko eskubidea, babes judizial eraginkorrerako eskubidea bermatuz, Espainiako Konstituzioak 24. artikuluan aldarrikatutakoa, alegia. Hala ere, manu horrek galdetzen du, hura aplikatzearren, alderdietako batek ere ez dezala aurka egin, defentsa-gabezia sor lezakeen ezagutza eza alegatuta, eta, hortaz, ez litzateke guztiz beteko Gutunaren 9. artikulua. Agintaritza judizialari dagokio defentsa-gabezia gertatzen den ala ez baloratzea. Ondore horietarako, Gobernuak eutsi egin dio bere jarrerari, hots, ez dela beharrezkoa BJLO aldatzea Gutunak eskatutakoa betetzeko.*
>
> *Ildo horretan, Justizia Ministerioak bi jarduera-ildo adostu berri ditu:*
>
> *• Gaztelania ez beste hizkuntza koofizialaren erabilera aztertzea. Horretarako, harremanetan jarri da Autonomia Estatutuan hizkuntza koofizialak aitortuta dituzten autonomia-erkidegoetako hizkuntza-politikako arduradunekin 2020ko lehen hiruhilekoan, lehenik eta behin, datuak biltzeko, Justizia Administrazioan hizkuntza horiek duten benetako erabilerari buruz, eta bigarrenik, hobetzeko proposamena egiteko. Azterketa hori ezinbestekoa da, batetik, abiapuntuko egoera praktikan zein den ezagutzeko, eta, bestetik, zein neurri ezar daitezkeen aztertzeko, hizkuntza koofizialak eremu judizialean modu egokian erabiltze aldera.*

[1] European Charter for Regional or Minority Languages. Fifth report of the Committee of Experts in respect of Spain. Hemengo testua Arartekoak itzulia da (https://labur.eus/1eosE) eta jatorrizko txostenaren 2.1.1.2 atala biltzen du. Jatorrizko testua, hemen: https://labur.eus/uXjLc

[2] Informe sobre las recomendaciones de acción inmediata formuladas por el Comité de Ministros del Consejo de Europa en su Resolución de 11 de diciembre de 2019 en relación a la aplicación de la Carta Europea de Lenguas Regionales y Minoritarias por el Reino de España (Madrid, julio de 2020). Hemen jasotako testua guk itzulia da. Jatorrizko testua, hemen: https://labur.eus/HTNsH

• *Hizkuntza koofizialak "Adimen Artifiziala (AA) Justizia Administrazioan" deritzan proiektuan sartzea: proiektu horren bidez bilatzen da jarduera judizialak laguntza eraginkorra izan dezala lortzea, analitika judizial aurreraturi bidea emanez, eta herritarraren eskura komunikazio kanalak jarriz Justizia Administrazioarekin harremanetan jartzeko, hizkuntza koofizialak komunikazio osagaietako bat izanik. Adibide gisa, AA delakoaren paketean sartuko da, besteak beste, espediente judizial batean dagoen dokumentazioa hizkuntza koofizialetarako itzulpen automatikoa. Proiektua justiziako profesionalei eta Justiziako zerbitzu publikoaren erabiltzaileei zuzenduta dago.*

Aditu-batzordeak 2021eko martxoan ikuskatu zituen berriro ere hartutako neurriak eta ondorio batzuk atera zituen, hala nola Botere Judizialaren Lege Organikoa ez dela aldatu, nahiz eta beste neurri batzuk hartu diren, eta Espainiako Estatuak ez duela estrategia egituraturik Estatuko Administrazio Orokorrean euskara erabiltzeko Euskadin. Areago, egiaztatu zuenaren arabera, 2018ko enplegu publikoaren eskaintzan ez zen kontuan hartu euskararen ezagutza, Gutunaren 10.4.b) artikuluaren kontra:[3]

> II Berehalako ekintzarako gomendioak
>
> 1. Euskadi Euskal Herrian Berehalako Ekintzarako Gomendioa
>
> a. Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzea, prozesu judizialetan euskararen erabilera bermatzeko, aldeetako batek eskatzen duenean.
>
> 28. Botere Judizialaren Lege Organikoa ez da aldatu. Agintariek hartutako neurrien eta adituen batzordeak egindako ebaluazioaren berri izateko, ikus 13-17. paragrafoak:
>
> Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzea, prozesu judizialetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabili ahal izateko.
>
> 13.-
>
> Prozesu judizialetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzea hizkuntza koofizial guztiei eragiten dien gaia da, eta Estatu mailako legeria aldatu beharko litzateke. Lehen ikuskapen-zikloaz geroztik, Adituen Batzordeak lege-esparrua aldatzeko gomendioa egin die Espainiako agintariei, argi gera dadin autonomia-erkidegoetako zigor-arloko agintari judizialek, zibilek eta administratiboek hizkuntza koofizial batean jardun dezaketela, alde batek eskatuta. Hala eta guztiz ere, ez da aurrerapausorik eman 9. artikuluaren arabera Espainiak aukeratutako betebeharrei dagokienez. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikuluak ezartzen duenez, epaileek eta auzitegi barruko gainerako langileek gaztelania erabiliko dute normaltasunez, eta gaztelania ez den autonomia-erkidegoko hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, bi aldeetako batek ere eragozpenik jartzen ez badio. Bestalde, ezartzen du auzilariek, horien ordezkariek eta horiek zuzentzen dituztenek, lekuko eta adituez gain, jardun judiziala gauzatzen den autonomia-erkidegoko hizkuntza ofiziala

[3] *Evaluation by the Committee of Experts of the Implementation of the Recommendations for Immediate Action contained in the Committee of Experts' fifth evaluation report on SPAIN* (Strasbourg, 31 March 2021). Hemen jasotako testua guk itzulia da. Jatorrizko testua, hemen: https://labur.eus/KvyoE

erabili ahal izango dutela idatzizko zein ahozko adierazpenetan. Termino praktikoetan, epaileek oso gutxitan erabiltzen dute gaztelania ez den beste hizkuntza bat, eta bestela tokiko hizkuntza ofiziala aukeratuko luketen alderdiek askotan gaztelaniara jotzen dute. Alderdi batek hizkuntza koofiziala erabiltzen jarraitzen duenean, normalean interprete bat erabiltzen du, prozesu guztiak hizkuntza horretan egin beharrean. Hizlarien ordezkariek adierazi dutenez, horrek eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen erabilera auzitegietan uste baino askoz ere txikiagoa izatea dakar, herritarren hiztunen ehunekoa kontuan hartuta.

14.

Estatuko agintariek Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzeko arrazoirik ez dagoela esan arren, Gutunaren 9. artikuluaren arabera Espainiak aukeratutako betebeharrak erabat betetzeko, 231. artikuluaren azterketa sendo batek erakusten du ez datorrela benetan bat betebehar horiekin. Lege Organikoak erabat bete ditzan, 231. artikuluak argi utzi behar du prozesu penal, zibil eta administratiboak dagokion eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan egin behar direla, alderdietako batek bakarrik eskatuta.

15.-

Gobernuz Kanpoko Erakundeetatik jasotako erantzunen arabera, hizkuntza koofizialak hitz egiten dituzten funtzionario judizialen kopurua ez da igo azken informazio-zikloaz geroztik, eta, beraz, mugatuta dago, oraindik ere, gutxiengoetako edo eskualdeetako hiztunek beren hizkuntza erabiltzeko eskubidea baliatzeko aukera. Gainera, Minerva izeneko itzulpen-softwareak, gaur egun prozesu judizialetan erabiltzen denak, ez ditu barne hartzen eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan erabiltzen diren forma guztiak, eta ez dira aldatzen lege-aldaketen arabera, gaztelaniaren neurri berean.

16.

Estatuko agintariek inkesta bat abiarazi zuten 2020an, prozesu judizialetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera eraginkorrari buruzko informazioa biltzeko eta emaitzetan oinarritutako hobekuntzak proposatzeko. Adituen Batzordea zain dago inkestaren emaitzei buruzko informazioa jasotzeko. Ekimen honetaz gain, adimen artifizialari buruzko proiektu bat abian da, eta eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetara itzulpen automatizatuak eskaintzea du helburu. Esan beharra dago, hala ere, horrek ezin duela erabat ordezkatu auzi judizial baten giza ezagutza eta adimena.

17.

Adituen Batzordeak uste du Espainiako agintarien planteamenduak 9. artikuluan zehaztutako betebeharraren aurka jarraitzen duela. Adituen Batzordeak deitoratu egiten du Espainiako agintariek beren ikuspuntua aldatu ez izana. Hori dela eta, behin eta berriz aipatzen du beharrezkoa dela berehala legegintza-neurriak hartzea, prozesu judizialetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabili ahal izateko alde batek eskatzen duenean, Espainiak berretsitakoari jarraikiz.

1.2.5 Eusko Jaurlaritzaren 174/2010 Dekretua

Aipatutako aurrekarietan eta dagozkion eskumenen egikaritzan oinarrituz, 174/2010 Dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, EAEko Justizia Administrazioko hizkuntza-

normalkuntzari buruz. Besteak beste, lanpostu berezituei hizkuntza eskakizunak esleitzeko prozesua bideratzen du. Praktikan gauzatu nahi du koofizialtasun-erregimena, euskal herritarrei zerbitzu hobea emate aldera.

174/2010 Dekretuan ahalegina egin zen herritarrek hizkuntza propioa erabiltzeko duten eskubidea eta hizkuntzak arlo judizialean duen zabalkunde soziologikoa uztartzeko, eta horretarako, lanpostu zehatz batzuk bereiztearen aldeko apustua egin da.

Honek bost jarduera-eremu nagusi ditu:

- lanpostu batzuk lanpostu berezi gisa sailkatzea
- unitateak katalogatzea hizkuntza betebeharrei begira
- funtzionarioentzat hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroak antolatzea
- bulego judizial eta fiskaletan eta zerbitzu erkideetan euskara erabiltzeko programak sustatzea
- lantalde elebidunak funtzionalki eratzea bulego judizial, fiskaltza eta zerbitzu erkide guztietan

Bestalde, eta sarreran aipatu dugun bezala, dektretuak lege oinarri sendoa eman zion EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntza normalizatzeko lehenengo plan nagusiari. Plana 2010-2020 bitarteko aldian garatu zen, eta hurrengo lerroetan laburbilduko ditugu plana horren amaierako ebaluazioko emaitzak.

1.3 HIZKUNTZA EZAGUTZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

Bi egoera-azterketa erakutsiko ditugu:

- Batetik, I. Plan Nagusiaren ebaluazioan egindakoa, plan harekin lortutakoa gogoratzearren.
- Bestetik, plan berria hasteko atariko egoera, gaur egungo datuak erakustearren.

1.3.1 Hizkuntza Normalizazioko I. Plan Nagusiaren emaitzak (2010-2020)

1.3.1.2 Justizia Administrazioko langileen hizkuntza gaitasunaren maila

Justizia Administrazioko lau kidego daude 174/2010 Dekretuaren eraginpean:

- Laguntza Judizialeko kidegoa ("laguntza")
- Izapidetze Prozesal eta Administratiboko kidegoa ("izapidetza")
- Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko kidegoa ("kudeaketa")
- Auzitegiko Medikuen kidegoa ("medikuntza")

Planaren amaieran, 2.344 dotazio zeuden lau kidegoetan: egiturazko 2.207 (egituran finkatuak), eta errefortzuko 137. Azken horiek izaera iragankorra dute eta plangintzatik kanpo daude.

Kidegoetan jarduteko erreferentziazko hizkuntza mailari Hizkuntza Eskakizun (HE) deritzo. Erreferentzia da, zeren, kidegoa osatzen duten lanpostu guztietatik dotazio jakin batzuei baino ez baitzaie ezarri HE egiaztatzeko betebeharra, tokian-tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera. Kidegoari dagokion HE egiaztatzeko beharra ezarrita duten lanpostuei "hizkuntzagatik bereizitako lanpostu" esaten zaie, eta HE egiaztatzeko data mugak "bereizteko data" du izen.

Honela banatu ziren, lurraldeka eta barrutika, egiturazko 2.207 dotazio haiek:

LURRALDEA	BARRUTIA	DOTAZIOAK	%
ARABA	Amurrio	23	**327**
	Vitoria-Gasteiz	304	% 14,8
BIZKAIA	Balmaseda	22	**1.250**
	Barakaldo	185	% 56,6
	Bilbao	856	
	Durango	60	
	Gernika-Lumo	51	
	Getxo	76	
GIPUZKOA	Azpeitia	33	**630**
	Bergara	50	% 28,5
	Donostia/San Sebastián	404	

	Eibar	35	
	Irun	54	
	Tolosa	54	
GUZTIRA		2.207	% 100

Lurralde arteko aldearen zergatia biztanle kopurua da: Araba % 15, Bizkaia % 52 eta Gipuzkoa % 33. Bizkaiak legokiokeen baino pisu handixeagoa dauka, bertan baitaude, lurralde horri berez dagozkion organoez gain, EAE mailako organo gehienak ere. Horrenbestez, EAEko Justizia Administrazioko dotazio guztietatik % 39 Bilbon daude, ia bostetik bi. Ggarrantzitsua da hori kontuan hartzea, zeren, lanpostuetan hizkuntza eskakizunak ezartzeko prozesua Bulego Judizial Berria ezartzearekin batera joan denez, Bilbon oraindik ere ez baita ezarri, eta ezin izan baita bertan kokatutako organoetan dotaziorik bereizi.

Honela banatuta zeuden, kidegokaegiturazko 2.207 dotazio haiek:

KIDEGOA	DOT.	%
Laguntza	445	20
Izapidetza	1.019	46
Kudeaketa	687	31
Medikuntza	56	3
GUZTIRA	2.207	100

Izapidegileena zen kidego handiena (% 46); gero kudeatzaileak (% 31) eta laguntzaileak (% 20); azkenik, auzitegiko medikuak (% 3).

Euskara meritutzat hartzen denerako nahiz lanpostu berezituetarako galdatzen denerako, honako hizkuntza eskakizunak ezarri zituen, kidegoka, 174/2010 Dekretuko 4. artikuluak, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailarekin alderatuta (HEEMB).

- **3. hizkuntza eskakizuna** (HEEMB - C1 maila)
  - Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko kidegoan
  - Auzitegiko Medikuen kidegoan.

- **2. hizkuntza eskakizuna** (HEEMB - B2 maila)
  - Laguntza Judizialeko kidegoan
  - Izapidetze Prozesal eta Administratiboko kidegoan

Taula honetan ikus daiteke zenbat dotazio bereizi ziren hizkuntzagatik (**HED**), kidegoka, hots, zenbatetan ezarri den kidegoari dagokion HE egiaztatzeko data muga, eta zenbat utzi ziren bereizi gabe, hots, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko betebeharrik gabe (**HEG**):

KIDEGOA	DOT.	HEG	%	HED	%	2. HE	3. HE
Laguntza	445	282	63	163	37	465	-
Izapidetza	1.019	717	70	302	30		
Kudeaketa	687	463	67	224	33	-	245
Medikuntza	56	35	63	21	38		
GUZTIRA	**2.207**	1.497	68	710	32	**% 21** *HEdunen **% 65***	**% 11** *HEdunen **% 35***

Hau da, 710 dotazio bereizita daude plangintza berria hasi aurretik (% 32,2): % 65ek 2. HE dute xede, eta % 35ek 3. HE. Kopuruak tokian-tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera ezarrita, honela banatzen dira lurralde eta barrutika:

LURRALDEA	BARRUTIA	DOT.	% ↓	HED	% ↓	DOT.	HED	% ↓
ARABA	Amurrio	23	1,0	9	39,1	327	116	35,5
	Vitoria-Gasteiz	304	13,8	107	35,2			
BIZKAIA	Balmaseda	22	1,0	9	40,9	1.250	231	18,5
	Barakaldo	185	8,4	56	30,3			
	Bilbao*	856	38,8	56	6,5			
	Durango	60	2,7	35	58,3			
	Gernika-Lumo	51	2,3	42	82,4			
	Getxo	76	3,4	33	43,4			
GIPUZKOA	Azpeitia	33	1,5	25	75,8	630	363	57,6
	Bergara	50	2,3	34	68,0			
	Donostia/San Sebastián	404	18,3	212	52,5			
	Eibar	35	1,6	24	68,6			
	Irun	54	2,4	29	53,7			
	Tolosa	54	2,4	39	72,2			
GUZTIRA		2.207	100	710	100	2.207	710	32,

(*) Bilbon ez denez oraindik ezarri Bulego Judizial Berria, ez da lanposturik bereizi. Horregatik da txikia Bizkaian bereizitako dotazioen kopurua (% 18), Bilbon bertan %6,5 baino ez baita.

a) Langileen hizkuntza gaitasuna

Dekretuaren eraginpeko kidegoetan zihardutenlangile guztien hizkuntza maila erakusten da taulan, errefortzuko dotazioak ere kontuan harturik, zerbitzu ematen zuten langile guztien gaitasuna erakustearren. Horretarako, langile bakoitzak egiaztatu zuen HE gorena

hartu da oinarri, kontuan hartu barik ez zihardutenkidegoa ezta dotazioa bereizita zegoen ere.

2020	EAE	%	ARABA	%	BIZKAIA	%	GIPUZKOA	%
1. HE	**153**	6	**26**	7	**80**	6	**47**	7
2. HE	**534**	23	**73**	20	**303**	23	**158**	23
3. HE	**600**	25	**79**	22	**298**	23	**223**	33
4. HE	**47**	2	**1**	0	**15**	1	**31**	5
HErik ez	**1.032**	44	**185**	51	**628**	47	**219**	32
GUZTIRA	**2.366**	100	**364**	100	**1.324**	100	**678**	100

EAEn erdiek bazten Justizia Administrazioko kidegoetako erreferentziazko hizkuntza mailetako bat (2. eta 3. HE) edo goragoa (4. HE), % 42k Araban, % 47k Bizkaian, eta % 60 pasatxo Gipuzkoan. Hori azpimarratu beharrekoa da, izan ere, %32k baino ez baitzuten HE egiaztatzeko betebeharra.

EAEn % 44koa zen hizkuntza eskakizunik bat ere ez zutenen proportzioa. Araban eta Bizkaian antzeko proportzioak zeuden: Araban erdiek ez zuten hizkuntza eskakizunik bat ere egiaztatu, eta Bizkaian ehuneko hori apur bat jaitsi bazen ere, erditik gertu zeuden oraindik ere. Gipuzkoan, ordea, herena baino ez zen hizkuntza eskakizunik egiaztatu ez zutenen proportzioa.

Kidegoetarako hizkuntza eskakizun altuena (3. HE) laurden batek bazuen egiaztatuta EAEn: Gipuzkoan, heren batek; Araban eta Bizkaian, ordea, 10 puntu baxuagoa zen proportzioa. Antzekoa zen lurralde guztietan 2. HE dutenen ehunekoa: % 20 <> % 23.

GRAFIKOA

2020: Funtzionarioek egiaztatutako hizkuntza eskakizunak (%)



b) Kidegoaren hizkuntza eskakizuna (KHE) egiaztatzea

Beheko taulan ikus daiteke zenbat funtzionariok gainditu zuten kidegoaren HE, bilakaera aurreko plangintzaldia hasi eta amaitu arte erakutsita. Kidegoan euskarazko gaitasun orokorra erakustearren, ez zen kontuan hartu dotazioan hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko betebeharrik badagoen, eta, horregatik, errefortzuko langileak ere batuta daude kopuruotan.

LURRALDEA	2011	**%**	2020	**%**
ARABA	**85**	21,35	**133**	36,5
BIZKAIA	**338**	26,38	**551**	41,6
GIPUZKOA	**198**	28,86	**386**	56,9
EAE	**621**	26,25	**1.070**	45,2

Ikusten denez, bilakaera positiboa izan zen lurralde guztietan: Araban % 71ko hazkuntza izan zen hamar urtean, Bizkaian % 58koa, eta Gipuzkoan % 97koa.

Hona hemen aurreko plangintzaldiaren amaierako datuak, kidegoko hizkuntza eskakizuna gutxienez egiaztatu zutenak (**>=KHE**) eta maila horretara iritsi ez zirenak (**<KHE**) bereizita:

KHE	langileak	<KHE	%	>=KHE	%
2	1.585	833	53	752	47
3	781	463	59	318	41
Guztira	2.366	1.296	55	1.070	45

Bi kontu izan behar dira gogoan:

- Kidegoko HE: 2. HE laguntzaile eta izapidegileek; 3. HE kudeatzaile eta auzitegiko medikuek.
- Dotazio guztietan ez zegoen HE egiaztatzeko betebeharrik, dotazio bereizietan baino ez.

Hala, % 45 langile kidegoko HE lortuta zeuden: 3. HEkoetan % 41, eta 2. HEkoetan % 47.

Kidegoka zehaztuta, hona hemen aurreko plangintza amaierako datuak:

2020	EAE	KEH	%
Laguntza	472	**229**	48,52
Izapidetza	1.113	**523**	46,99
Kudeaketa	729	**311**	42,66
Medikuntza	52	**7**	13,46
Guztira	2.366	**1.070**	45,22

c) Bereizitako dotazioaren hizkuntza eskakizuna (DHE) egiaztatzea

Lurraldeka eta barrutika, bereizitako dotazioetatik (**HED**) hauetan (**BAI**) egiaztatu zen xede HE:

LURRALDEA	DOT.	HED	%	BAI	%
ARABA	**327**	116	35,5	89	76,7
BIZKAIA	**1250**	231	18,5	189	81,8
GIPUZKOA	**630**	363	57,6	295	81,3
GUZTIRA	**2.207**	710	32,2	573	80,7

LURRALDEA	BARRUTIA	DOT.	HED	%	BAI	%
ARABA	Amurrio	23	**9**	39,1	**8**	88,9
	Vitoria-Gasteiz	304	**107**	35,2	**81**	75,7
BIZKAIA	Balmaseda	22	**9**	40,9	**8**	88,9
	Barakaldo	185	**56**	30,3	**47**	83,9

	Bilbao	856	**56**	6,5	**44**	78,6
	Durango	60	**35**	58,3	**29**	82,9
	Gernika-Lumo	51	**42**	82,4	**33**	78,6
	Getxo	76	**33**	43,4	**28**	84,8
GIPUZKOA	Azpeitia	33	**25**	75,8	**20**	80,0
	Bergara	50	**34**	68,0	**29**	85,3
	Donostia/San Sebastián	404	**212**	52,5	**170**	80,2
	Eibar	35	**24**	68,6	**20**	83,3
	Irun	54	**29**	53,7	**23**	79,3
	Tolosa	54	**39**	72,2	**33**	84,6
GUZTIRA		2.207	**710**	32,2	**573**	80,7

Dotazioen ikuspuntutik egin da azterketa, hots, zenbat dotazio bereizitan bete zen ezarritako HE. Orain, ordea, langileen alderditik egingo dugu. Lanpostu baten titular zirenen kopurua ez zen oso handia, % 55 baitzen, ordezko zebiltzanak, ordea, % 45 zirela. Bi kolektiboen artean alderik bazegoenez, titular/ordezko aldagaia ere hartu zen kontuan.

Hiru gauza hartu behar dira kontuan datuok aztertu aurretik:

- Bereizteko moduko dotazioak bakarrik aztertzeko, bazter utzita daude errefortzuko dotazioak (137), baita bete barik dauden dotazioak ere (114).

- Bi kolektibo bereizita daude: titularrak (T) eta ordezkoak (O). Titularrak apur bat gehiago baino badira ere, askoz handiagoa da ordezkoen artean bereizitako dotazio kopurua.

- Kopuruei erreparatuta, ez datoz bat dotazioen eta langileen kopuruak, halabeharrez. Izan ere, badira funtzionario batzuk titulartasunean duten dotazioan dihardutenak eta beste batzuk beste batean dihardutenak, zerbitzu eginkizunetan nahiz izendapen askean; badira lanpostua bi kidegotan izanda, horietariko batean bakarrik dihardutenak; badira haien dotazioetan edo titularrik ez duten dotazioetan diharduten ordezko behin-behineko funtzionarioak, baita azken horien ordez diharduten behin-behineko beste funtzionario batzuk, aldi baterako bajak edo absentziak direla-eta. Hori dela eta, batzuetan, gerta daiteke lanpostu bakar bati hiru pertsona ere loturik agertzea: titularra, haren ordezkoa eta ordezkoaren ordezkoa.

Horretaz gain, bi ohar egin behar dira azterketa egiteko moduaz:

- Bereizitako dotazioak “HED” izendatuko ditugu; ez bereizitakoak, “HEG”.
- Ataltxo bakoitzean honako hauek adieraziko ditugu:
    - Zenbat langilek ziharduten bereizitako dotazioetan eta ez bereizietakoetan
    - Zenbatek egiaztatu zuten dotazioan ezarritako HE, orotara

- Zenbatek egiaztatu zuten dotazioan ezarritako HE, kidegoka

DHE: Titular eta ordezkoak baturik

Titular (**T**) eta ordezko (**O**) ziharduten funtzionarioen kopuruak baturik, honela banatzen ziren bereizitako dotazioak (**HED**) eta generiko edo ez bereizitakoak (**HEG**):

T+O	HEG	%	HED	%
2.322	1.625	70	697	30

Titular edo ordezko ziharduten 2.322 funtzionarioen artean, % 30ek ziharduten bereizitako lanpostuetan, hots, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko data ezarrita.

Hona hemen dotazioa bereizita zuten 697 horietarik **zenbatek egiaztatu zuten** dotazioan ezarritako hizkuntza eskakizuna eta zenbatek ez:

HED T+O	BAI	%	EZ	%
697	562	81	135	19

Hots, bostetik lauk egiaztatuta zuten dotazioko HE, titular edo ordezko ziren begiratu gabe.

Kidegoka sailkaturik, ordea, honela banatzen ziren titular edo ordezko zihardutenen dotazioak:

KIDEGOA	GUZTIRA	HEG	%	HED	%
Laguntza	456	297	65	159	35
Izapidetza	1.090	791	73	299	27
Kudeaketa	730	512	70	218	30
Medikuntza	46	25	54	21	46

Medikuntzako kidegoan zihardutenek zuten dotazio datadunen proportzio altuena (%46).

Hona hemen, bereizitako dotazioetan zihardutenetatik, **kidegoka zenbatek egiaztatu** zuten dotazioko hizkuntza eskakizuna (**BAI**), esan bezala, titular edo ordezko diren begiratu gabe:

KIDEGOA	HED	BAI	%	EZ	%
Laguntza	159	130	82	29	18
Izapidetza	299	247	83	52	17
Kudeaketa	218	179	82	39	18
Medikuntza	21	6	29	15	71

Kidego guztietan antzekoa da dotazioko HE egiaztatutakoen ehunekoa (bostetik lau pasatxo), salbu eta Medikuntzako kidegoan, horretan, hamarretik zazpik ez baizuten egiaztatu.

DHE: Titularrak soilik

Dekretuaren mendeko funtzionarioetatik %55 zirela gogoan izanda, titular (**T**) zihardutenen artean honela banatzen ziren bereizitako dotazioak (**HED**) eta ez bereizitakoak (**HEG**):

T	HEG	%	HED	%
1.288	1.021	79	267	21

Guztirako datuen aldean, hamar puntu altuagoa da bereizi gabeko dotazioetan zihardutenen titularren kopurua, eta, hala, bostetik bat baino ez ziren bereizitako dotazioetako titularrak.

Hona hemen, dotazioa bereizita duten 267 titular horietarik (**HED T**), **zenbatek egiaztatu zuten** dotazioan ezarritako hizkuntza eskakizuna:

HED T	BAI	%	EZ	%
267	193	72	74	28

Hau da, titularren artean, ia hamarretik hiruk ez zuten oraindik ere egiaztatuta dotazioko HE.

Kidegoka sailkaturik, ordea, honela banatzen ziren titular zihardutenen dotazioak:

KIDEGOA	GUZTIRA	HEG	%	HED	%
Laguntza	220	164	75	56	25
Izapidetza	617	511	83	106	17
Kudeaketa	413	322	78	91	22
Medikuntza	38	24	63	14	37

Titularren artean, Medikuntzako kidegoak zuen bereizitako dotazioetan zihardutenen proportzio altuena (% 37). Txikiena, ordea, Izapidetzako kidegoak (% 17).

Hona hemen, bereizitako dotazioetan (**HED**) zihardutenen titularretatik, **kidegoka zenbatek egiaztatu zuten** dotazioko hizkuntza eskakizuna:

KIDEGOA	HED	BAI	%	EZ	%

Laguntza	56	40	71	16	29
Izapidetza	106	82	77	24	23
Kudeaketa	91	65	71	26	29
Medikuntza	14	6	43	8	57

Ikusten denez, ia kidego guztietan, hamarretik zapik baino gehiagok egiaztatu zuten dotazioko hizkuntza eskakizuna, izapidetzakoek kopuru altuena lorturik (%77), hots, hamarretik zortzi izatetik gertu. Hala ere, Medikuntzako kidegoan guztiz bestelako egoera ikusten da, erdiek baino gehiagok ez baitzuten dotazioko hizkuntza eskakizuna egiaztatu (%57), ia hamarretik sei izatetik gertu.

DHE: Ordezkoak soilik

Dekretuaren mendeko funtzionarioetatik %45 direla gogoan izanda, ordezko (**O**) zihardutenen artean honela banatzen ziren bereizitako dotazioak (**HED**) eta ez bereizitakoak (**HEG**):

O	**HEG**	**%**	**HED**	**%**
1.034	604	58%	430	42%

Titularren aldean, askoz altuagoa da bereizitako dotazioen proportzioa ordezko zihardutenen kasuan, %42, bostetik bi pasatxo baiziren, hots, titularren bikoitza.

Dotazioa bereizitako 430 ordezkoetatik (**HED O**), **zenbatek egiaztatu zuten** dotazioko HE:

HED O	**BAI**	**%**	**EZ**	**%**
430	369	86%	61	14%

Ikus daitekeenez, oso altua da dotazioan ezarritako HE egiaztatu zuten ordezkoen ehunekoa, hamarretik bederatzi izatetik gertu, titularren arteko ehunekoa baino altuagoa, gainera.

Kidegoka sailkaturik, ordea, honela banatzen dira ordezko zihardutenen dotazioak:

KIDEGOA	**GUZTIRA**	**HEG**	**%**	**HED**	**%**
Laguntza	236	133	56%	103	44%
Izapidetza	473	280	59%	193	41%
Kudeaketa	317	190	60%	127	40%
Medikuntza	8	1	13%	7	88%

Ikus daitekeenez, titularrek beteriko dotazioen aldean, ordezkoek beterikoetan bikoiztu (eta gehiago ere) egin zen dotazio datadunen kopurua. Deigarriena, Medikuntzako kidegoa: ordezkoen artean, ia hamarretik bederatzi dotazio baitzeuden bereizita.

Azkenik, hona hemen, bereizitako dotazioetan ziharduten ordezkoetatik, **kidegoka zenbatek egiaztatu zuten** dotazioko hizkuntza eskakizuna:

KIDEGOA	HED	BAI	%	EZ	%
Laguntza	103	90	87%	13	13%
Izapidetza	193	165	85%	28	15%
Kudeaketa	127	114	90%	13	10%
Medikuntza	7	0	0%	7	100%

Kidegoka, lorpen altuagoak izan zituzten ordezkoek, titularrek baino, ia kidego guztietan %90etik gertu baitziren dotazioko HE egiaztatutakoak. Salbuespena, berriz, Medikuntzako kidegoa: ordezko batek ere ez baizuen dotazioko HE egiaztatu. Nabarmena da kopuru altuena kudeaketako kidegoak izan zuela, eskatutako HE besteetan baino altuagoa bada ere (3. HE).

1.2.6 Transferitu gabeko langileen egoera

Bestalde, Justizia Administrazioko transferitutako funtzionarioen egoeraz gain, komeni da, halaber, epaile, magistratu, fiskalen eta Justizia Administrazioaren letraduen egoera ere aztertzea, baina begi-bistatik galdu barik ezen, kidego horiek Estatuaren eskumenaren esparruan kokaturik dagoenez, ez dutela inolako baldintzarik ezarrita hizkuntza eskakizunen ezarpenaren edota egiaztatzeko data mugen aldetik.

Nabaria da hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko maila transferitutako funtzionarioena baino are apalagoa dela. Hona hemen aurreko plangintzaldiaren amaierako egoera:

2020	GUZTIRA	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE	HEren bat
Epaile eta magistratuak	**284**	12 4,23%	17 5,99%	15 5,28%	2 0,70%	46 16,20%
Fiskalak	**112**	4 3,57%	2 1,79%	3 2,68%	0 0,00%	9 8,04%
Justizia Administrazioaren letraduak	**205**	15 7,32%	19 9,27%	17 8,29%	2 0,98%	53 25,85%

PLAN BERRIAREN ATARIKO EGOERA

Lehenengo planaren ebaluazioa egin zenetik urte eta erdia igarota, komeni da egun dagoen egoera zein den jasotzea, hasteko une bereko argazkia ahalik zehatzena eta fidelena izan dadin. Horretarako 2022ko urriko datuak erabili dira ataltxo honetan.

Ebaluazioan egin zen azterketa sakonaren ondoan, arinagoa da honako hau, kidegoka eta barrutika aldagarri gutxi batzuk aztertzera mugatu baikara: lehen planaren arabera zenbat postutan ezarri zen kidegoari dagokion hizkuntza eskakizuna; bestetik, gaur egun zenbat langilek egiaztatu duten lanpostuan ezarritako hizkuntza eskakizuna; azkenik, erreferentziazko indize soziolinguistiko berritua, 2016ko erroldako datuak oinarri.

Izan ere, ondoko tauletan erakutsi nahi dugu zenbateko aldea dagoen, barrutika eta gaur egun, aurreko planaren araberako HE ezarpenaren eta ezarritako hizkuntza eska kidegoari dagokion hizkuntza eskakizuna, eta, horren aldean, zenbateko portzentajea legokiokeen 2016ko erroldako erreferentziazko indize soziolinguistikoa kontuan hartuz gero, hau da, plan berria hasteko unean kontuan har daitezkeen datu berrienak.

Hasteko, zenbat lanpostu daude EAEko Justizia Administrazioan kidegoka? Zenbatek dute ezarrita kidegoari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko beharra? Hona hemen datuok:

KIDEGOA	PLAZAK	%	HED	%	HEG	%	KHE	HED	%
Laguntza	443	20,3	165	37,2	278	62,8	**2**	475	32,5
Izapidetza	1.017	46,7	310	30,5	707	69,5			
Kudeaketa	671	30,8	224	33,4	447	66,6	**3**	242	33,8
Medikuntza	46	2,1	18	39,1	28	60,9			
GUZTIRA	**2.177**	**100**	**717**	**32,9**	**1.460**	**67,1**	**KHE**	**717**	**32,9**

- KHE: Kidegoari dagokion hizkuntza eskakizuna.
- HED: Lanpostu bereizia, hots, HE egiaztatu beharra ezarritako lanpostua.
- HEG: Lanpostu generikoa, hots, HE egiaztatu beharrik gabea.

Hau da, egun, 2.177 lanpostu dira, guztira, 174/2010 Dekretuaren eraginpeko kidegoei dagozkienak. Kidego handiena, izapidetzakoa da (% 46,7); ondoren kudeaketakoa (% 30,8) eta laguntzakoa (% 20,3). Horien aldean, oso txikia da auzitegiko medikuen kidegoa (% 2,1).

Gogoan izan bi HE esleitu zaiela kidego horiei, erreferentzia gisa: 2. HE (HEEMB - B2) laguntzako eta izapidetzako kidegoei, eta 3. HE (HEEMB - C1) kudeaketako eta auzitegi-medikuntzako kidegoei. Lehenengo plangintzaldian egindako banaketaren arabera, hiru lanpostutatik batean ezarri zen kidegoari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko beharra (% 32,9). Kidegoka, HE ezarritako lanpostuen kopurua % 30 - %40 bitartekoa izan da. Ezarpen maila txikiena tamaina handieneko kidegoetan egon da: izapidetzakoan (%

30,5) eta kudeaketakoan (% 33,4); ezarpen maila handiena, aldiz, tamaina txikieneko kidegoetan: auzitegi medikuntzakoan (% 39,1) eta laguntzakoan (% 37,2).

Bestalde, mugapearen arabera aztertuko dugu egoera orain, barruti, probintzia eta erkidego mailak bereizita, eta aldi berean erakutsiko dugu, gaur egun, zenbat langilek duten egiaztatuta euren kidegoari dagokion erreferentziazko hizkuntza eskakizuna, baita zenbat langilek duten egiaztatuta postuari ezarritako hizkuntza eskakizuna, titularrak eta ordezkoak baturik nahiz bereizirik. Gogoan izan, lehenago esan bezala, ez datozela elkarrekin bat lanpostuen kopurua eta horietan diharduten langileen kopurua, absentziak direla eta, langile bat baino gehiago egon baitaiteke loturik lanpostu jakin bati. Horregatik, loturik dauden lanpostu guztien datuak hartu ditugu kontuan. Hona hemen datuak:

MUGAPEA	GUZTIRA	HEG	HED	BAI-T&O	BAI-T	BAI-O	KHE
EAE	84	77	7	**9**	4	5	42
Araba	59	37	22	**20**	8	12	27
Bizkaia	204	169	35	**33**	13	20	79
Gipuzkoa	108	52	56	**45**	18	27	59
Amurrio	23	14	9	**7**	4	3	11
Azpeitia	33	6	27	**22**	4	18	24
Balmaseda	21	12	9	**9**	3	6	11
Barakaldo	185	128	57	**53**	28	25	84
Bergara	49	16	33	**31**	7	24	35
Bilbao	547	536	11	**12**	4	8	227
Donostia	291	131	160	**160**	35	125	199
Durango	60	24	36	**34**	11	23	43
Eibar	35	11	24	**19**	5	14	22
Gernika-Lumo	50	8	42	**36**	4	32	39
Getxo	76	43	33	**29**	13	16	41
Irun	53	25	28	**24**	4	20	29
Tolosa	54	15	39	**35**	3	32	40
Vitoria-Gasteiz	245	156	89	**83**	29	54	105
GUZTIRA	**2.177**	**1.460**	717	**661**	**197**	**464**	**1.117**

- HEG: Lanpostu generikoa, hots, HE egiaztatu beharrik gabea.
- HED: Lanpostu bereizia, hots, HE egiaztatu beharra ezarritako lanpostua.
- BAI: Lanpostuan ezarritako HE egiaztaturik (T: titularrak; O: ordezkoak).
- KHE: Kidegoari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztaturik.

Azkenik, hurrengo taulan, mugapearen arabera alderatuko ditugu, alde batetik, lehenengo plangintzaldiaren amaieran ezarrita zeuden lanpostu bereiziak, eta bestetik,

erreferentziazko indize soziolinguistikoak, hala lehenengo plangintzaldikoa, 2006ko erroldaren araberakoa, nola, oraingoz, plangintzaldi berrirako kontuan hartzekoa, 2016ko erroldaren araberakoa.

Gogoan izan erreferentziazko indize soziolinguistikoaren kalkulua egiteko batuketa bat egiten dela: batetik, eremu jakin bateko euskaldunen portzentajea eta, bestetik, eremu horretako ia-euskaldunen portzentajearen erdia.

Gainera, kontuan hartu dagokion mugape judizialaren egoera soziolinguistikoaren arabera kalkulatzen dela indizea, mugapean mugapekoa, eta hortaz, ez dagoela EAEko Justizia Administrazio osorako indize bakarra. Hala, EAEko indizea erkidego osoa mugape duten organoetarako baino ez da kontuan hartzen (esaterako, EAEko Auzitegi Nagusikoetarako), eta lurraldekoa, probintzia mailakoetarako (esaterako, probintzia auzitegietarako).

MUGAPEA	GUZTIRA	% HED	EIS 2006	EIS 2016
EAE	84	8,3	48,46	**51,43**
Araba	59	37,3	36,34	**38,38**
Bizkaia	204	17,2	42,85	**46,47**
Gipuzkoa	108	51,9	63,19	**65,32**
Amurrio	23	39,1	38,51	**43,70**
Azpeitia	33	81,8	83,65	**82,65**
Balmaseda	21	42,9	30,90	**38,73**
Barakaldo	185	30,8	30,42	**36,62**
Bergara	49	67,3	69,09	**70,50**
Bilbao	547	2,0	38,54	**41,62**
Donostia	291	55,0	55,72	**58,70**
Durango	60	60,0	61,67	**63,22**
Eibar	35	68,6	68,08	**69,21**
Gernika-Lumo	50	84,0	80,44	**77,94**
Getxo	76	43,4	45,66	**49,22**
Irun	53	52,8	51,71	**55,21**
Tolosa	54	72,2	74,08	**74,81**
Vitoria-Gasteiz	245	36,3	36,05	**37,69**
GUZTIRA	**2.177**	32,9		

- HED: Lanpostu bereizia, lehenengo plangintzan ezarritakoaren arabera.
- EIS: Erreferentziazko Indize Soziolinguistikoa, errolda urtearen araberakoa.

2.- PLAN BERRIA

2.1 Eragin eremua

174/2010 Dekretuak zehazten dituen Justizia Administrazioaren kidegoak izango dira eragin eremu zuzenekoak:

- Laguntza Judizialeko kidegoa
- Izapidetze Prozesal eta Administratiboko kidegoa
- Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko kidegoa
- Auzitegiko Medikuen kidegoa

Nolanahi ere, eta ahal den neurrian betiere, horiek ezezik transferitu gabeko langileen kidegoak (karrera judizialekoak, karrera fiskalekoak, Justizia Administrazioaren letraduak eta bake-epaileak), eta lan kontratupeko langileak ere hartuko dira kontuan, nahiz eta Dekretuan finkatzen diren zuzeneko eraginpeko kidegoen artean jasota egon ez.

2.2 Eragin epea

Justizia Administrazioaren hizkuntza normalizaziorako plangintzaldiak 10 urtekoak izaten dira, 174/2010 Dekretuaren 8.2 artikuluan ezartzen den moduan. Beraz, 2023ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2032ko abenduaren 31n amaituko da.

2.3 Planaren xedea

Herritarren eskubidea bermatzea, Justizia Administrazioaren zerbitzuak beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean jaso ditzaten, eta administrazio horrekin harremanetan jartzean, hizkuntza ofiziala hautatzeko eskubidea egikaritzeko bidea izan dezaten.

2.4 Helburu nagusiak

Aurreko planak bost helburu nagusi finkatu zituen:

- Euskarari **garrantzi handiagoa** eskaintzea eta horri **hedapena** ematea.
- Herritar zein profesionalen artean **euskarazko zerbitzuen erabilera sustatzea**, eskaintza ugarituz.
- Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen artean **euskararen erabilera sustatzea**.
- Epaile, fiskal, eta Justizia Administrazioaren letraduek euskararen normalizaziorekiko **jarrera positiboa** izan dezaten saiatzea.
- Abokatuak **sentsibilizatzea eta gaitzea**.

Horietan oinarriturik, helburu hauek finkatzen dira:

- Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen euskara maila hobetzea (prestakuntza: ikastaro orokorrak, berezituak…).
- Behar diren zerbitzuak antolatu eta martxan jarri, Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioek euskara erabil dezaten. (erabilera: dokumentazioa, itzulpenak…).
- Epaile, fiskal, eta Justizia Administrazioaren letraduek euskararen normalizaziorekiko jarrera positiboa izan dezaten saiatzea (euskara normalizatzeko eskaintzen eta lanen berri ematea, eta haietan parte hartzeko bidea ematea).
- Herritarren eta Justizia alorreko profesionalen artean ere euskarazko zerbitzuen erabilera sustatzea.

2.5 Planaren parte-hartzaileak

Transferitutako langileen kasuan, nola edo halako erantzukizun komunikatiboa duten langile guztiak.

Gainerako langileen kasuan, berriz, gehienez ere gonbita luzatzen ahal diegu planean parte hartzeko.

2.6 Singularizazio-datak ezartzeko irizpideak

174/210 Dekretuaren 9.1 artikuluan aipatzen den bezala, zein postu bereizi behar den zehazte aldera, kontuan hartu behar da euskarak dagokion mugape judizialean duen benetako ezarpena, eta, horretarako, Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarri bezala, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 11. artikuluan araututako indize soziolinguistikoa kontuan harturik baloratuko da.

Erroldako datu soziolinguistikoak dira indizearen oinarria, eta errealitatea ahalik eta zintzoen islatzeko, erroldan errolda gertatzen diren aldaketekin arabera egokitu egingo da indizea, planak dirauen bitartean.

Indizea definitzen duen 86/1997 Dekretua besteren batek ordezkatzen badu, dekretu berriko definizioa hartuko da kontuan.

2.7 Planaren jarraibideak

174/2010 Dekretuan ezartzen denez gero, bost urteko epealdi bakoitzaren amaieran ebaluazio bat egingo da. Hortaz, bi ebaluazio egingo dira:

- Lehena, tarteko ebaluazioa, 2027. urtea amaitu ondoren, hots, plana hasi eta bost urtebetegarrenean.
- Bigarrena, planaren amaierakoa, 2032. urtea bukatu ondoren.

2.8 Planaren garapen-bideak eta ezartze-moduak

Bi lan molde edo egitura erabiliko dira plana aurrera eramateko:

a) Batetik, plan estrategikoa: plangintzaldi osoaren helburuak eta adierazleak finkatuko dira han.

b) Bestetik, kudeaketa plana: urteko planak izango dira, eta han egin beharreko ekintzak zehaztuko dira, plan estrategikoan finkatu diren helburuen adierazleak betetzen eta osatzen joan daitezen.

I. Ildo nagusiak

Justizia Administrazioak berezko ezaugarriak ditu hala antolamenduaz nola funtzionamenduaz denaz bezainbatean, eta horrek nortasun eta izaera berezia ematen dio erakundeari. Karrera judizialekoak, karrera fiskalekoak eta Justizia Administrazioaren letraduak, adibidez, Estatuko administrazioaren langileak dira, transferitu gabekoak. Beraz, estatus berezia dute, eta ezin zaie aplikatu administrazio orokorrean euskararen erabilera normalizatzeko erabiltzen den araudi orokorra (hizkuntza eskakizunak ezarri…).

Zalantzarik gabe, horrek guztiak eragin zuzena izan du aurreko urteetan egin den lana egituratu eta bideratzeko garaian, eta, dudarik gabe ere, eragina izango du hurrengo urteetan plangintzaldi berrirako egingo den lanaren diseinuan.

Hurrengo lan-ildoak izango dira oinarri plangintzaldi berrirako:

1. Hizkuntza eskakizunak

174/2010 Dekretuak Justizia Administrazioko kidegoei ezarritako hizkuntza eskakizun sistema eraginkorra izan da aurreko plangintzaldian, gorakada nabarmena izan baitzuen egiaztatze-mailak (%45,2).

Transferitu gabeko kidegoetan, berriz, euskararen ezagutza- eta egiaztatze-mailak oso apalak dira.

Garbi dago aurrera jarraitu beharra dagoela hizkuntza eskakizunak behar diren lanpostuetan ezartzen. Horretarako lan zehatza egin beharko da identifikatzen non eta noiz ezarri behar diren. Kontuan hartuko da, halaber, Bulego Judizial Berriak ekarri eta ekarriko dituen aldaketa funtzionalak. Bestaldetik, Euskararen erabilera arautzen duen Dekretu berriak ezartzen dituen aldaketak (trebetasun desberdinak lanpostu berean ezartzea, azterketa bidez hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko bideak irekitzea…) ere landu beharko dira hurrengo hamar urteetan.

Hala ere, Dekretuaren eragin zuzenaren menpean ez badaude ere, transferitu gabekoei dagokienez, lan handia egin beharko da euskararen ezagutza- eta egiaztatze-mailak handitzeko, euskara ikasteko programa berriak eskainiz, euskara ikasteko aukerak euren beharretara egokituz… Izan ere, ezin ukatuzkoa da horien garrantzia Justizia Administrazioaren komunikazioan, haiek emandako erabakietan baitautza ondoriozko komunikazioak, eta hizkuntza ofizialetan duten ezagutza maila desberdinak nabarmen baldintza baitezake auzi bat garatzeko bidea, alderdiei erantzuteko bideen arteko desorekak sortzeraino, aurkeztutako idazki baten edo parte hartzaile batek erabilitako hizkuntza ofizialaren ezagutzen ez bada.

2. Prestakuntza

Hizkuntza-gaitasunean aurrera egiteko ezinbestekoa da prestakuntzan egiten den lana ondo bideratua eta egituratua egotea. Hori dela-eta, hiru atal nagusi aurrez ikusten ditugu hurrengo plangintzaldirako:

a) Ohiko euskalduntzeko deialdien bidez egiten den eskaintza eta bideratzen den lana,.

b) Euskara on-line izeneko eskaintzaren bidez lantzen diren programak eguneratu, egokitu eta berriak egitea.

c) Prestakuntza berezituaren alorrean kokatu beharreko hizkera eta dokumentu juridikoen lanketa ekarriko duen on-lineko programa berria abian jartzea.

Prestakuntza berezitua bereziki landu beharko dugu hurrengo plangintzaldian, baldin eta euskararen ezagutza-maila eta, batez ere, erabilera bultzatu eta handitu nahi badugu, kidego guztietan. Dokumentuetan agertzen den terminologia, adierazpideak… landu beharko ditugu.

Dagoeneko hasiak gara prestakuntza berezitua lantzen, zehazki Prozedura zibila, eta dudarik gabe programa berriak egituratu eta sakonki landu beharko ditugu.

3. Komunikazio elebidunak areagotzea

Aurreko plangintzaldian gorakada ikusgarria gertatu zen ele bietan erabiltzen diren dokumentu kopuruan, %35ekoa izatetik %61 izatera pasatu baitzen.

Jauzi hori gertatzeko indarrean egon diren egiturak eta baliabide informatikoak indarrean jarraitu beharko dute hurrengo plangintzaldian, edo horien ordezko egokiak jarri, atzera pausurik izan ez dadin, erdietsitako lorpenak eta egindako ahaleginak alferrik ez galtzeko. Eta hor ezin da begi-bistatik galdu zer nolako eragina izan duen itzulpen lagunduko teknologiak, horri esker posible izan baita ele bietan izapidetzea hizkuntza ofizial biak ezagutzen ez zituzten langileek edota maila berean menperatzen ez zituztenek. Izan ere, estrategikoa izan behar da izapidetza elebiduna zama bikoitza ez izatea, horretan jardun behar duen langilearentzat. Plan honen sarreran aipatu den bezala, gaurko testuinguru aldakorrean ezinbestekotzat jotzen da AVANTIUS plataforman euskara egoki txertatzeko tresna zuzenak erabiltzea.

Herritarren eskubideak bermatu ahal izateko, ahalbidetu egin behar da jasotzen duten informazioa eta zerbitzua haiek aukera dezaketen hizkuntza ofizialean hartzea, elebitasuna ezin baita norabide bakarrean ulertu, hots, eskubidea ez baita soilik herritarrak berak nahi duen hizkuntza ofizialean zuzentzea bere komunikazioak, baizik eta administraziotik jasotzen dituenak ere hizkuntza horretan hartzea.

Esan barik doa komunikazio horietan zaindu beharrekoa dela erabilitako hizkuntzaren zuzentasuna eta bi hizkuntzetako testuen arteko egokitasuna, bide beretik segurtasun juridikoa berma dadin.

4. Dokumentuen estandarizazioa

Izapidetzeko aplikazio informatikoetako idazki ereduen kalitatea zaindu eta bermatu egin behar da; hori dela eta, beharrezkoa da epaitegietako dokumentuak euskaraz normalizatzeko batzordea (Euskara Batzordea) suspertzea, etengabe eguneratu beharreko idazkiak kalitatez normalizaturik egon daitezen aurrerantzean ere.

Ezin da ahaztu, berebiziko lana egina duela batzordeak, sortu zenetik, arlo juridikoko euskarazko terminologian eta fraseologian pairatzen zen batasun ezari aurre egiteko, eta funtsezkoa izan dela adostasunak bilatzeko eta soluzioak finkatzeko gune gisa.

Hori dela eta, orain arteko normalizazioaren bidean etenik eta atzerapausorik izan ez dadin, bermatu egin beharko da EAEko Justizia Administrazioan sortzen diren testuetan terminologia eta fraseologia bateratua erabiltzen dela, batzordeak ezarritako irizpideei jarraikiz, betiere.

5. Ahozkotasuna

Aipatu diren arrazoiengatik oso urria da euskararen ahozko erabilera Justizia Administrazioan, alderdi guztietan: epaiketetan, herritarrekiko harremanetan… Horregatik, hiru alderdi, gutxienez, aztertu eta landu beharko dira:

a) Euskararen presentzia ziurtatzea mezu orokorrak-eta eman behar direnean.

b) Baliabide teknologiko berriak lantzen direnean euskararen aukera txertatu funtzionala eta erabilia izan dadin. Esate baterako, testu idatzia ahots bihurtzeko tresnak, edo ahozko jarduna testu idatzia bihurtzekoetan.

c) Herritarrekiko harrerak ele bietan egiteko ohitura finkatzea.

6. Itzulpengintza

Ezin saihetsi itzulpengintzara jotzea bi hizkuntza ofizialen ezagutza maila berdina ez denean, hala defentsa gabeziarik sor ez dadin, nola herritarrek hizkuntza ofizialetako bat aukeratzeko eskubidea egikaritzeko modua izan dezaten.

Jakina da bide horrek zenbait eragozpen dakarrela, atzerapenak, esaterako, baina horretaz jakitun izanik, ahalegin berebizikoak egin behar dira denbora horiek ahalik eta laburren izan daitezen, eta langintza horretan diharduten langileei, itzultzaileei, behar diren baliabide teknologiko egokiak jarri behar zaizkie eskura, lan egiteko modua eta emaitza optimizatu daitezen, lana azkarrago eta ziurtasun handiagoz egin ahal izan dadin.

Era berean, prozedura une bakoitzean itzultzaile nahiz interpreteen lana beharrezkoa dela ohartarazteko bideak finkatu eta hobetu behar dira, behar diren baliabideak behar besteko aurrerapenaz xeda daitezen, prozeduran nahigabeko etenik sor ez dadin.

7. Komunikazio digitala

Interneteko komunikazio-esparruan garatu beharko da planaren zati bat; izanez ere, gero eta garrantzi eta zabalkunde handiago hartzen ari da ingurune digitala eta. Beraz, nahitaez landu beharko dira proiektuak esparru horretan: web orriak, blogak..

Halaber, gero eta ezarriago dago administrazioarekin komunikatzeko bide telematikoen erabilerarekin, eta aipatu diren antolakuntza eraginkortasunaren lege berrien bitartez,

nahitaezkoa bihurtuko da komunikazio bide hori. Hori dela eta, ezinbestekoa da bide horietan euskararen presentzia eta erabilera bermatzea.

Bide berean ere, lortu behar da telematikoki egindako komunikazioetako testuak formatu erabilgarrian izatea, itzultzeko aplikazioetan erraz txertatu ahal izan daitezen, itzultzeko prozesua automatizatzeko, jatorrizkoa/itzulpena itzulpen memorian txertatzeko bideak bilatuz, egindako lana gal ez dadin eta ondorengo antzeko lanak berririk berri egin beharrik izan ez dadin. Guzti hau AVANTIUS tresnaren garapen egokien bitartez egiaztatuko da.

8. Auzia euskaraz

Aurreko plangintzaldia hasitakoan sortu eta abiatu zen "Auzia Euskaraz" egitasmoa, 2013ko abenduan jarri baitzuen abian Eusko Jaurlaritzak, lehenengo Normalizazio Plan Orokorrean aurreikusita ez zegoen eta. Haren bidez, baliabideak eskaini nahi ziren prozedura judizial osoak, demanda judiziala aurkezten denetik hura ebatzi arte, euskaraz tramitatu ahal izateko, horretarako behar diren urratsak arlo judizialean parte hartzen duten eragile talde guztien arteko koordinazioa sustatuz eta adostasuna bilatuz.

Egitasmoa abiatu zenez geroztik, han eta hemen urrats interesgarriak egin baziren ere, ez zen lortu osotasun baten arabera jardutea eta mailaka-mailaka aritzea lortu, era planifikatu batean. Izan ere, Justizia Administrazioaren barruko eta inguruko eragile talde batzuekin aritzera mugatu zen, eremu judizialaren piramidearen goialdeko eragile taldeekiko harremanak nahi beste jorratu barik, nahiz eta, Jaurlaritzaren eskumenetik kanpo egonik, aritzeko koordinazio eta adostasun behar handiena haiekikoa izan.

Nolanahi ere, testuinguru aldakor honetan, tinko jarraitzen du Auzia Euskaraz bultzatzeko asmoak, eta, suspertu egin beharko da proiektua, izan ere, landu beharreko bilgune eta eragin-gune estrategikoa izango da egitasmoa, kanpoko eta barruko eragileak batera jarri behar baititu lanean. Alabaina, horretarako beharrezkoa izango da betiere eragile juridikoek dituzten nahiak eta beharrak aztertzea eta dauden lan aukerak tresna zehatzen bidez garatzea. Bitartean, baina, aurrez egindako lanean jarduten jarraitu eta sakondu egingo da.

Nolanahi ere, oraingo plangintzaldi honetan egokiago ikusten dugu beste ikuspegi batetik saiatzea eraikitzen gune hau, berezko eta berariazko plangintza bat behar baitu, eta, hala, plan berriak aurrera egin ahala, aztertuko dira koordinazio-beharrak eta sortu beharreko bilguneak, eta horretan oinarriturik goragoko egiturak finkatuko dira, planari beste aterki eta dimentsio bat emateko asmoz.

9. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak

Oinarri gisa, 174/2010 Dekretuak 13. eta 14. artikuluetan ezarritakoa hartu behar da kontuan:

13. artikulua.-

Euskara, Euskadiko hizkuntza ofiziala denez gero, edozein jardun judizialetan erabili ahal izango da, baita edozein organo judizialen eta Justizia Administrazioko organoen aurrean aurkezten diren agiri guztietan ere, eta erabateko baliozkotasuna eta eraginkortasuna izango du.

14. artikulua.-

1. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak honako hauek izango dira:

a) Ahozko komunikazioa:

- *Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak, esaterako, erantzungailu automatiko, bozgorailu eta antzekoen bidez emandakoak, euskaraz eta gaztelaniaz zabalduko dira, hurrenkera horri jarraituz.*
- *Euskara-ezagupenak dituzten langileek euskaraz hartuko dituzte herritarrak, eta gero, erabiltzaileek aukeratzen duten hizkuntzan jarraituko dute. Herritarra funtzionarioari euskaraz zuzentzen zaionean, edota arreta hizkuntza horretan ematea eskatzen duenean, funtzionarioak, euskaraz behar adina ez badaki, langile elebidunen laguntza eskatuko du.*

b) Idatzizko komunikazioa:

- *Justizia-arloan eskumena duen sailak ahalbidetuko eta sustatuko du herritarrei bidali beharreko jakinarazpenak eta zitazioak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo direla, Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Legearen 9. artikuluan ezarritakoari kalterik eragin gabe.*

2.- Justizia-arloan eskumena duen sailak bitartekoak eta baldintzak jarriko ditu, honako hauek gerta daitezen:

a) Herritarrentzako edozein komunikaziotan euskara erabil dadin: zuzeneko ahozko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgorailu bidezko mezuetan, komunikazio edo informazio idatzian, eta are teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidezkoetan, hala nola, Internet, faxa, posta elektronikoa eta antzekoak.

b) Herritarrei zuzenean bidali beharreko izapidetzea elebiduna izan dadin, batez ere jakinarazpenak, zitazioak, errekerimenduak eta epatzeak.

10. Prestakuntza orokorra

Langileen kudeaketa arloak kontuan hartu beharko du euskara, lanari lotutako gaien prestakuntza jasotzeko orduan, horretarako, langileek prestakuntza zein hizkuntzatan jaso nahi duten hautatu ahal izan dezaten, euskara ere zerbitzu hizkuntza ez ezik, lan hizkuntza ere badela gauzatzen joateko.

11. Kontratazio irizpideak

Justizia Administraziorako kanpoko zerbitzuak kontratatzeko orduan, zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eman beharra hartu beharko da, kontratazio irizpideetan. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza irizpide berberak erabiliko dira Justizia Administraziorako kanpoko zerbitzuak kontratatzean.

II. Plangintza

Datorren hamarkadan jarduteko gidalerro finkoak ematea zaila da, kontuan harturik Justizia Administrazioa egoera aldakorrean dagoela. Alde batetik, Bulego Judizial Berria guztiz ezarri barik dago oraindik ere, dotazioen % 40 gutxi gorabehera eraginda; bestetik, epaitegietan organo mota berrien sorrerak eta aurreko batzuen aldaketa antolamendua eraldatzea ekarriko du, dela Instantziako Auzitegien figura, dela Erregistro Zibilen izaera, dela Bake Epaitegien arloko aldaketa.

Horretaz gain, Jaurlaritzak Administrazioan euskara normalizatzeko araudi berria ezartzeko nahia iragarri du, baina Justizia Administrazioaren eremuan norainoko eragina izanggo duen ez da oraindik finkatu.

Eta ezin da kontuan hartu barik utzi, idatzizko ekoizpen elebidunean berebiziko garrantzia baitu, epaitegietan izapidetzeko aplikazioa aldatzen ari dela, eta aurreko sistemarekiko aldaketak norainoko eragina izango duen ez dela ezagutzen.

Arrazoi horiengatik, besteak beste, beharrezkoa da malgutasunez jokatzea eta ez finkatzea epe edo helmuga zorrotzegirik. Lehen planean bezala, bosna urteko bi epealdi proposatzen dira plan honetan, eta, bidea eman nahi da bigarren epealdiari ekiteko orduan behar diren norabide aldaketak planteatzeko, baldin eta atal honen hasieran azaldu diren egoera edo inguruabar horiek zer dakarten argitu bada, eta horren ondorioz, halabeharrez, jokabidea aldatu edo zuzendu behar bada ere.

Horregatik, xumeak dira ondoren planteatzen diren helburuak, xumeak baina praktikoak, baina. Helburu horiek lortzeko hainbat ekimen edo ekintza zerrendatu dira eta, alboan, haiek neurtzeko adierazleak jaso dira.

HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK

1. **Langileen hizkuntza gaitasuna gehitu**
2. **Euskararen idatzizko erabilera gehitu**
3. **Euskararen ahozko erabilera gehitu**
4. **Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu**

1.- Helburu orokorra: Langileen hizkuntza gaitasuna gehitu

Alorrak	Ekintzak	Adierazleak	Kuantifikazioa	
			2023	2033
Hizkuntza eskakizunak egiaztatzea	Singularizazio Datak eguneratu eta egungo egoera soziolinguistikoaren arabera banatu singularizatu beharreko lanpostu kopuruak	Lanpostuan HE ezarria eta egiaztatua duten langileen kopurua edo ehunekoa	**% 45,2**	**% 70**
	HE egiaztatzeko deialdien berri eman	HE egiaztatua dutenen kopurua edo ehunekoa	**% 66**	**% 90**
Euskararen ezagutza hobetzea langile transferituen artean	Ohiko euskalduntzeko deialdiak egin	Ohiko euskalduntze ikastaroetan parte hartzen dutenen kopurua	**300**	**200**
	On-line ikasteko deialdiak egin	On-lineko ikastaro berezituetan parte hartzen dutenen kopurua	**200**	**400**
	On-line ikasteko programa berriak diseinatu eta eskaini	Ikastaro eta programa berrien kopurua	**24**	**40**
Euskararen ezagutza hobetzea langile ez-transferituen artean	Ohiko euskalduntzeko deialdiak egin	Ohiko euskalduntze ikastaroetan parte hartzen dutenen kopurua	**50**	**100**
	On-line ikasteko deialdiak egin	On-lineko ikastaro berezituetan parte hartzen dutenen kopurua	**40**	**100**
	On-line ikasteko programa berriak diseinatu eta eskaini	Ikastaro eta programa berrien kopurua	**24**	**40**

2.- Helburu orokorra: Euskararen idatzizko erabilera gehitu

Alorrak	Ekintzak	Adierazleak	Kuantifikazioa	
			2023	2033
Herritarrek bete beharreko formularioak	Erabilitako formularioak bildu	Bildutako dokumentuen kopurua	-	-
	Erabilitako formularioak ele bietan estandarizatu eta elebidun bihurtu	Atondutako dokumentuen ehunekoa, jasotakoen kopuruarekiko	-	%100
Izapidetzeko idazki txantiloiak	Egungo txantiloi bildumako txantiloi elebidunen kopurua handitu	Txantiloi guztiekiko ehunekoa	**%42**	**%60**
	Itzulitako idazki ereduak batzordeak finkatu	Batzordeak aztertu eta finkaturiko txantiloien kopuruak	-	**%100**
	Egungo txantiloi elebidunak erabiltzera bultzatu	Ele bietan izapidetutako dokumentuen ehunekoa	**%60**	**%75**
Sortze libreko idazkiak	Estandaritzatzeko moduko idazkiak identifikatu	Aztertutako dokumentuen kopurua	-	
	Idazkiak estandarizatzea	Estandarizatutakoen ehunekoa, aztertutakoen kopuruarekiko	-	**% 100**
Langileek ele bietan izapidetzea	Izapidetzako testu zatien itzulpena	Jasotako eta erantzundako kontsulten kopuruak	**3.000 urtean**	**4.000 urtean**
Epaitegietako euskararen normalizazioa eta zabalkundea	Itzulpen memoria osatzea	Bildutako unitate kopurua	**340.000**	**380.000**
	Itzulpen memoria hobetzea	Ponderatutako unitateen ehunekoa	**% 35,6**	**% 50**
	Memoria erabiltzaileen eskura erabilgarri jartzea	Erabiltzaileek egindako bilaketa eta kontsulta kopuruak		
Sortutako idazkien kalitatea	Sortutako idazkien zuzentasuna eta egokitasuna aztertzea eta zaintzea	Atzemandako arazo-kopuruak, eta idazki akastunen ehunekoa, aztertutako idazkiekiko		
	Atzemandako kalitate-arazoak zuzentzea	Arazoak zuzentzera bideraturiko ekintzen kopurua		

3.- Helburu orokorra: Euskararen ahozko erabilera gehitu

Alorrak	Ekintzak	Adierazleak	Kuantifikazioa	
			2023	2033
Bulego barruko erabilera	Lanean euskararen erabilera handitzeko ekintzak garatzea	Sortutako lantaldeen, horiek egindako saioen eta garatutako ekintzen kopuruak	**0**	
Jendaurreko erabilera	Lehen hitza euskaraz ematera bultzatu	Egindako ekintzen kopurua	**0**	**20**
	Euskarazko arreta bermatzea	Kexa kopurua	**-**	**0**
Deklarazioak, agerraldiak eta epaiketak	Ekitaldietan euskara erabiltzea	Euskaraz egindako deklarazio, agerraldi eta epaiketen kopuruak	**-**	

4.- Helburu orokorra: Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu

Alorrak	Ekintzak	Adierazleak	Kuantifikazioa	
			2023	2033
Errotulazio formala	Errotulazio elebiduna bermatzea	Errotulu ofizial elebidunen ehunekoa	**% 100**	**% 100**
Errotulazio informala	Errotulazio elebiduna sustatzea	Errotulu elebidunen ehunekoa	**% 79**	**% 100**
	Errotuluak ele bietan egiteko laguntza ematea	Jasotako eskaera eta egindako errotulu kopuruak	**-**	
Aurrez aurreko harrera	Euskarazko arreta bermatzea	Kexa kopurua		**0**
	Arreta euskaraz nola eman ezagutaraztea	Jasotako kontsulten eta emandako aholkuen kopuruak	**-**	
Megafonia	Eman ohi diren mezuen testuak bildu, ele bietan estandarizatu eta zabaltzea	Jasotako eta estandarizatutako testu kopuruak	**-**	
Kanpoko erakundeen iragarkiak eta kartelak	Iragarki eta kartek elebidunen kopuruak handitzea	Iragarki eta kartek elebidunen kopurua eta guztiekiko ehunekoa	**% 49**	**% 75**